

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Hasierako onespena ematea Arabako Teknologia Parkeko PT-1 eremuaren (B sektoreari buruzkoa) azterlan xehearen bigarren aldakuntzari

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko irailaren 20an egindako ohiko bilkuran:

1. Hasierako onespena ematea Arabako Teknologia Parkeko PT-1 eremuaren (B sektoreari buruzkoa) azterlan xehearen bigarren aldakuntzari, zein 2017ko abenduaren 4ean aurkeztu baitzuten Arabako Teknologia Elkartegia SAREN ordezkariak.

2. Hasierako onspena jaso duen azterlan xehea jendaurrean jartzea, hogei egunez ALHAOn eta zabalkunderik handieneko egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, nahi duen orok aztertzerik izan dezan, baita alegazioak aurkezterik ere.

Dosierra Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai — Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, behea—, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko irailaren 30ean

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE